

**15 /2018 TXOSTENA, ABUZTUAREN 3KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: LAN GEHIGARRIAK, 9/2017 LEGEA INDARREAN JARRI AURRETIK
KONTRATATUTAKOEI GEHITUTAKOAK****Aurrekariak:**

2018ko uztailaren 12an txosten-eskaera bat sartu zen Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzan, Euskal Trenbide Sareak igorria, hau argitzeko: zer araudi aplikatu behar zaien azaroaren 8ko 9/2017 Legea indarrean jarri aurretik kontratatutakoen osagarri diren hornidura, zerbitzu edo obrei (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; aurrerantzean, SPKL).

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari zuzendu zitzaion, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko burua den aldetik, idazkiak berak dioenez.

Eskumena:

I.- Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubideari buruzkoa) 27.c) artikuluan xedatzen duenez, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak aholkularitza-eginkizun hau bete behar du, besteak beste: <<*Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera hori kontratazioa kudeatzeko mandatua duten Eusko Jaurlaritzako zuzendariak edo sektore publikoko gainerako erakundeetako legezko ordezkariak egin behar dute, idatziz*>>.

II.- Hala, bada, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zuzenbide pribatuko erakunde publiko batek kontratazio publikoaren arloko gai bati buruz galdetu duenez eta haren zuzendari nagusiak igorri duenez eskaera, hori uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27ko artikuluko c) letran sartzen da.

III.- Goian aipatutako 116/2016 Dekretuaren 30.2.c) artikulua araberan, Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorraren eginkizuna da txosten hau ematea.

GOGOETA JURIDIKOAK.

Lehenengoa.- SPKLaren lehenengo xedapen iragankorra lege hori indarrean jarri aurretik hasitako espedienteek eta adjudikatutako kontratuek ari da, eta honela dio:

“1. Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako kontratazio-espedienteak aurreko araudiaren bidez arautuko dira. Horretarako, kontratazio-espedientea hasita dagoela ulertuko da, baldin eta kontratua adjudikatzeko prozeduraren deialdia ordurako argitaratuta badago. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen kasuan, kontratuaren hasiera-unea zehazteko, pleguak onartutako data hartuko da kontuan.

2. Lege hau indarrean sartu aurretik adjudikatutako administrazio-kontratuak, haien ondorioei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez —haien aldaketa, iraupena eta luzapena barne direla— aurreko araudiaren bidez arautuko dira.

[...]

Bigarrena.- Beste alde batetik, SPKL indardunak ez die inolako erreferentziarik egiten kontratu osagarriari (eskatzailak lan gehigarriak deitzen dien horien antzeko zerbaitek) aurreko araudian ulertzen ziren moduan. Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginean (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua eta egungo SPKLaren bidez indargabetua) bazeuden erreferentzia zehatzak obretarako (171.b artikulua), horniduretarako (173.c) eta zerbitzuetarako (174.b), baina SPKL berriak oso bazterrean baino ez du aurreikusten —168.c)2 artikuluan, eta horniduretarako bakarrik— publizitaterik gabeko

prozedura erabiltzeko aukera, “Hasierako hornitzaileak emate gehigarriak egiten dituenean, direla erabilera arrunteko hornidura edo instalazioen birjartze partzialak, direla lehendik badauden hornidura edo instalazioen zabaltzeak, hornitzaile-aldaketak bestelako ezaugarri teknikoak dituen materiala eskuratzera behartzen badu kontratazio-organoa, neurritz kanpoko bateraezintasunak edo erabili eta mantentzeko zailtasun teknikoak eraginez. Kontratu horien iraupena ezingo da izan, oro har, hiru urtetik gorakoa”.

Hala, bada, hori guztia kontuan izanik, batzorde honek hau erabakitzen du:

ERABAKIA

SPKLa indarrean jarri aurretik kontratatutakoen gehigarriak diren lanei aplikatu behar zaien araudiaz informatzea, era honetara:

Adjudikazio-prozeduraren deialdia —edo baldintza-agirien onarpena— Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria indarrean jarri aurrekoa duten kontratuei (lege hori 2018ko martxoaren 9an jarri zen indarrean) lehengo araudia aplikatu beharko zaie, beren ondorioei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez, beren aldaketa, iraupena eta luzapen-araubidea barne direla.

Lege berria indarrean jarri eta gero, lehengo araudiaren bidez araututako prozeduren gehigarri edo osagarriak diren prestazioetarako lizitatzen diren prozedurak prozedura berriak dira eta, beraz, SPKL indardunaren bidez arautu beharko dira.

Horregatik, txosten-eskaeran SPKLTBaren 171.b) artikulua aplikatzeko aukerari buruz egin den galderaren erantzuna ezezkoa izan behar da.

Urriaren 30eko 31/2007 Legeak (uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzkoa) txosten hau egiterakoan indarrean dirau; beraz, erakunde eskatzaileak lege horretara jo ahal izango du aplikagarri zaien gaitetan.

SPKLa indarrean jarri aurreko kontratuen balizko aldaketei dagokienez, arestian esan dugun bezala lehengo araudiaren bidez arautuko dira kasu guztietan.

